



**Ikaskuntza
Errazten**

eta

Berrikuntzan

**UNIBERTSITATE
MASTERRA**

Lit,

Fail together.
Learn together.
Light it up.



Mondragon
Unibertsitatea

Facultad de Humanidades y
Ciencias de la Educación

TeamLabs/
FACE THE
NEXT

Lit,

**Fail together.
Learn together.
Light it up.**

Ikaskuntza errazten eta berrikuntzan Unibertsitate- Masterra. (LIT)

/Informazio txostena/



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

TeamLabs/
FACE THE
NEXT

Aurkibidea,

Zer da LIT?

LIT, Learn. Innovate. Teach each other
Irakasleen prestakuntzatik ikaskuntza erraztera
Edukiak errepikatzetik ezagutza sortzera

Nolako da LIT?

LEGO eredua: edozein sar daiteke masterra egitera, baina denek ez dute zertan modu berean jaso prestakuntza, ezta prestakuntza bera jaso ere.

Irteera-geltoki bat eta askotariko helmugak

Master hibridoa: online eta presentziala

Programaren egitura:

Nola egituratzen da programa?

Zergatik LIT?

Fail Together. Learn Together. Light it up.

Norentzat da egokia LIT?

Eraldaketan sakontzea eta ez azalean geratzea helburu duten pertsonak bilatzen ditugu.

Nork garatzen du LIT?

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI)

Teamlabs

Informazioa

Oinarrizko informazioa
Prezioa

Zer da LIT?


LIT, Learn. Innovate. Teach each other

Lit, unibertsitate-master bat da, 60 ECTSkoa. Haren helburu nagusia zera da: hezkuntza- eta lan-testuinguruetako ikaskuntza-prozesuetan diharduten profesionaleri laguntzea lanbideari buruzko **gogoeta kritikoa** egiten eta gizarteak ikaskuntza-inguruneei eskatzen dizkien hainbat arazo, erronka eta aukerari aurre egiteko **estrategia praktikoak eta lanabesak** eskuratzen.

Programa **elkarlanaren eta esperientziaren** bidezko ikaskuntza lehenesten duen ikuspegi batean oinarritzen da, eta praktikari buruzko gogoeta bateratu bat eragitea du helburu, ikaskuntzak ikerkuntza-proiektuetan berehala aplikatzea bultzatuz.

Hori dela eta, **programak garrantzi handia ematen dio ikerkuntzari**; areago, ikerketari heltzeko modu berri bat proposatzen du, ikaskuntza kooperatibo, sozial eta taldekakoaren testuinguruan. Ikerketa-ekosistema zabalago bat eraikitzea da helburua: ikerketa-ekosistema trans/inter/pluri/anti-diziplinar bat eraikitzea, alegia.

Ikaskuntza Erraztea eta Berrikuntza Unibertsitate Masterra (Lit,) Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Teamlabs ikaskuntza erradikaleko laborategiak elkarlanean garatutako proiektu bat da, zeinek bere esperientzia baliatuz, eta hezitzailearen lanbideak VUCA (Volatility, Uncertainty, Complexity and Ambiguity) eta UTRU (Unprecedented Transformations and Radical Uncertainties) mundu batean hartuko dituen lan-ildo berriak esploratzea du helburu, horretarako berariaz prestatutako programa baten bidez.



Irakasleen prestakuntzatik ikaskuntza erraztera

Ariketa teoriko bidezko edo gaien errepikapen bidezko prestakuntzan oinarritzen diren hezkuntza-ereduak gero eta gehiagotan dira zalantzan jarriak, are gehiago edukietarako mugagabeko sarbidea eskaintzen duen errealitate batean, kontuan izanik erakundeak ez direla jada ezagutza-iturri bakarrak, ezta nagusiak ere.

Paradigma-aldaketa horrekin batera, premiazkoa da **ikastetxe zein erakundeetan gauzak egiteko, pentsatzeko eta ikasteko modu berriei behar bezala erantzuteko gai izango diren profil profesionalak prestatzen hastea.**

Hezkuntza-profesionalak inoiz baino beharrezkoagoak dira orain; ez, ordea, irakasle hizlari edo irakasle instruktoreak, ez behintzat orain arteko eskumen eta funtzio berberak mantenduz.

Testuinguru berri honetan, ezinbestekoa izango da ikaskuntzaren kudeaketaz arduratzen diren pertsonen **irakaskuntza-rolak eta irakaskuntza-estrategiak aldatzea**, eta aldaketa horiek era guztietako erakundeetan eta hezkuntza- eta lanbide-testuinguru guztietan gauzatzea.

Ikaskuntza-prozesuak erraztea helburu duen lanbide berri bat eraikitzeke eta sendotzeko beharrari erantzun bat emateko asmoz sortua da, hain zuzen, **Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan Unibertsitate Masterra (LIT)**. Lanbide-profil horren trebetasun berrien artean honako hauek aipa daitezke: berdinen artean ikastun gisa egoteko gaitasuna, ikaskuntzaren helburu indibidual eta kolektiboen definizioan laguntzea, lan-esparru koherente bat sortzea, eta metodologia, lanabes eta testuinguruen ekarpena egitea aipaturiko ikaskuntza hori gerta dadin.

Edukiak errepikatzeetik ezagutza sortzera

Ingurune aldakorretara egokitzeko zein lanbide-, hezkuntza-, enpresa- edo, besteak beste, **gizarte-esparruetan sortzen diren arazo konplexuei askotariko irtenbideak eskaintzeko premiaren** erantzun gisa sortua da ikaskuntza errazteko behar hau.

Master honetan, **erronkak onartzeko eta proiektuka lan egiteko gaitasuna** landuko da bereziki. Hau da, kontua jada ez da edukiak errepikatzea, besterik gabe, baizik eta ezagutza berriak sortzea eta horiek kritikoki aztertzea eta testuinguru egokian erabiltzea.

Programak jorratzen duen berrikuntzaren kontzeptuak berekin dakar sormen-ohiturak eskuratzeko beharra, erraztaileek honako erronka honi aurre egin ahal izateko: ikaskuntza ingurune zehatz eta erreal batera eramatea. Horrek eragina izango du, noski, horretatik onura ateratzen duten pertsonengan eta erakundeetan.

Masterraren testuinguruan, **berrikuntzak bere praktikotasunari egiten dio erreferentzia**, eta testuinguru errealean aurrera eramandako ikerkuntza-proiektuen garapenean gauzatzen da, aurreko egoerari balio erantsi bat gehitzeko gaitasunarekin.

Gainera, pertsonak proiektuen erdigunean jartzen dituen berrikuntzaren ideia horretan, ezagutza ez da jada ikergai den pertsonaren INGURUAN eraikitzen, haren parte-hartze AKTIBOAREKIN batera baizik.

Nolakoa da LIT?

LEGO ereduak: edozein sar daiteke masterra egitera, baina denek ez dute zertan modu berean jaso prestakuntza, ezta prestakuntza bera jaso ere.

Master batek alor jakin batean espezializatzea dakar, eta horrek edukien estandarizazioa ekarri ohi du, baina baita askotariko profilen beharrak asetzeko egokia ez den erantzun-eredu homogeneo bat ere.

Ilido horretan, LIT masterrak, prestakuntza-eskaintza zurrunen gaintetik egon nahi du, eta espezializazio pertsonalizatuko aukera batzuk eskaintzen ditu horretarako, premia heterogeneoei erantzuteko bide emateko modukoak.

Irteera-geltoki bat eta askotariko helmugak

Ikaskuntza-prozesu guztia gizartearen eta hezkuntzaren berrikuntza-erlaketarako ikerketa-proiektu baten inguruan ardaztuko da, eta hezkuntza- edo korporazio-inguruneetan aplikatuko da.

Era horretan, programan izena ematen duten pertsona guztiek guztientzat erkide diren prozesu eta esperientzia batzuk jasotzen eta partekatzen dituzte, eta beren interes partikularren arabera ikaskuntza-testuinguruetan egiten dute lan, gainera, proiektuak berak gidarizat hartuta.

Master hibridoa: online eta presentziala

Eredu honek, masterra eta lana bateragarri egiteko aukera emateaz gain, ikaskuntza-maila guztiak (banakakoa, taldekakoa eta proiektukakoa) hainbat modutan antolatzeko bidea eskaintzen du.

Hala, edukia lantzeko bideak hainbat dira: mintegiak, lantegiak, inspirazio-bisitak, gogoeta-saioak, adituen bisitak, kontraste-faseak adituekin eta berdinen artean, bidaia-lagunekin egindako saio presentzialak, eta eduki aurreratuko online moduluak.


Programaren egitura: Zikloak

Masterraren barruan, pertsona bakoitzaren ikaskuntza-prozesua bakarra da, baina hainbat ziklotan banatuta eskainiko da, prozesua erraztearren. Ziklo bakoitzak etapa espezifiko bat markatzen du masterra egiten ari den taldearen eta proiektuen garapen pertsonalean, eta helburu zehatzei erantzuten die.

Beraz, ziklo bakoitza **metodologia espezifiko** baten inguruan ardatzen da, eta ziklo horren testuinguruan garrantzia duten **lanabesak** erabiltzeko aukera eskaintzen du, ikaskuntza adierazgarri edo esanguratsu baterako bidea errazteaz gain.

Zergatik zikloak?

- 1. Banakako, taldekako eta proiektukako ikaskuntzan sakontzeko aukera eskaintzen du**, esplorazioari, erabakiak hartzeari, entregagarriak egiteari behar adina denbora eskainiko zaiola eta laguntza egokia jasoko dela ziurtatuz.
- 2. Garrantzizko lanabesak eta metodoak barneratzen**, hau da, **ikaskuntza errazteko lanabes-kutxak (bakoitzak berea) sortzen laguntzen du**, lanabes horiekin esperimendatuz hartzen den esperientziatik abiatuta.



Nola egituratzen da programa?

#01. ZIKLOA. ABIAPUNTUA

#01 zikloaren helburua **gizartearen eta hezkuntza- eta gizarte-berrikuntzako joeren arteko erlazioa ulertzea** da, nola funtzionatzen duten konprenitzea, gogoetarako gakoak ematea. Inspirazioaz gain, zikloaren alderdirik garrantzizkoena **ildo koherente baten arabera lan egiteko** orientabidea ematea da, ikasleek aurrera eraman behar dituzten proiektuetarako testuingurua eta edukiak zein diren jakitea.

Ziklo hau amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak garbi izango du zein den bere ideia multzoa **gizarte- eta hezkuntza-aldaketarako eragile gisa**, betiere abiapuntutzat hausnarketa pertsonala eta taldearena eta gidaritzat ikerketa-gaiak (ikasteko gogotik, ez esparru teorikotik sortutako ikerketa-gaiak) aukeratzeko inspirazioa izango dituen prozesu baten barruan.

EDUKIAK

Murgiltze- eta harrera.astea

Gizarte- eta hezkuntza-aldaketak. Aitua: Andoni Eizagirre.

Inspirazio-bidaia [Bartzelona].

Hezitzaileak bideratzaile gisa duen rola. Aitua: Nagore Iñurrategi.

#02. ZIKLOA. PROIEKTUA

LITen # 02 zikloak **zure proiektua aurrera atera ahal izateko** zer tonu, energia eta lan-erritmo izango duzun ezartzen du, lankidetzaz-lana alde batera utzi gabe.

Zikloaren ardatza ikerketa da, eta **ikerketara hurbiltzeko modu berri bat aztertu ahal izango duzu, ikaskuntza kooperatibo, sozial eta taldekoaren testuinguruan**. Zikloaren amaieran, zure ikerketa-proiektuaren lehen prototipoa izango duzu.

EDUKIAK

Ikerketako joerak. Aitua: Andoni Eizagirre.

Human Centered Innovation. Aitua: Marta Lago.

Ikerketa-proiektuak diseinatzea. Aitua: Antonio Lafuente.

Ikaskuntza-komunitateak erraztea. Aitua: Fernando Trujillo eta David Álvarez

Praktika gogoetatsua: Karmele Perez.

#03. ZIKLOA. GARAPENA

Ziklo hau **sormenean** oinarritzen da. Lehen bi zikloetan, zure ikas-komunitatea konfiguratu da; hirugarren honetan, berriz, zure ikerketa-proiektua garatuko duzu.

Horretaz gain, **zure espezializazioa programaren barnean kokatuko duzu**, Lego moduluen bitartez.

1. Elkarrekin bizitzen ikasi, aniztasun funtzionalari eta genero-aniztasunari buruzko ezagutzan jartzen du arreta, kolektibo desberdin, gutxitu eta disidenteak diren aldetik.

Adituak: Agurtzane Martínez eta Amelia Barquín.

2. Eskolako kapital kulturala, Gaitasun eleaniztunak eta kulturartekoak ikuspegi kritikoarekin garatzen ikasiko duzu, eskola inpaktu sozialeko eragile gisa ulertzeko.

Adituak: Ane Urizar eta Eneritz Garro.

3. Aldaketa hezkuntza-erakundean, aldaketa hezkuntza-erakundearen prozesuaren gakoak aztertuko dituzu.

Adituak: Ainara Artetxe, Arantza Ozaeta eta Eneritz Garro.

4. Complexity Navigation, konplexutasuna eta aldaketa zure eguneroko profesional eta pertsonalaren atal gisa lantzen ikasiko duzu.

Aditua: Elizabeth Pastor.

5. Taldeak bideratzea, taldean ikasteko kontzeptuak eta metodologiak esperimentatuko dituzu, zure lanaren funtsezko oinarri diren heinean, ikasten duen talde bat eraikitzeke esperientziara bideratuta.

Adituak: Rubén Jerónimo eta Irati Lekue.

6. Ikaskuntza-prozesuaren berrikuntza, zure ikasleekin hobeto konektatzeko eta haien ikaskuntza errazteko estrategiak ezagutuko dituzu.

Aditua: Xabier Arregi.

7. Lifelong learning, moduluaren proposamena bidaiari bihurtzea da, bidaiaren existentzia eta ikaskuntza ulertzeko adierazpenik onena dela ulertuta.

Aditua: Paloma Moruno.

8. Learning analytics: moduluaren proposamenak ikaskuntza analitikak zertarako eta nola erabili ikaskuntzak areagotzeko erakundeetan erakusten digu.

Aditua: Aurelio Jimenez.

9. Ikaskuntza erraztea ingurune digitaletan, etorkizuna (eta oraina) espazio digitala esploratzean datza. Ingurune digitaletako ikaskuntza errazteko entrenatzen ikasiko duzu.

Aditua: Nagore Ipiña.

10. Ikaskuntza erraztea ingurune hibridoetan, sareko testuinguru batean ikaskuntza eta berrikuntza nola erraztu ikasiko duzu.

Adituak: Aitor Zuberogoitia eta Andrés Gostín.

11. Ikaskuntza- eta berrikuntza-ekosistemak, ekosistema berritzaile bat sortzea eta ezartzea ahalbidetzen duten osagai eta dinamika nagusiak zein diren jakiteko.

Adituak: Juan Freire eta Beatriz García González.

12. Ikerketa kuantitatiboa, ikerketa kuantitatiboa egiteko funtsezkoak diren kontzeptu eta tresnetan sakontzeko. (Nahitaezkoa doktorego-ibilbidean). **Aditua: Nekane Arratibel.**

13. Ikerketa kualitatiboa, paradigma kualitatiboak, haiekin lotutako metodoak eta datuak biltzeko eta aztertzeko teknikak ezagutzeko. (Nahitaezkoa doktorego-ibilbidean).

Aditua: Alexander Barandiaran.

#04. ZIKLOA. ERREPIKATZEA ETA ABIARAZTEA (INPLEMENTAZIOA)

Taldeak hainbat proiektu ditu aurrera eramateko, proiektu sendoak, sareak balioztatuak. Aldaketak eta birmoldaketak gerta daitezke bidean, baina proiektuari sendotasuna ematea da zikloaren helburua.

Gainera, zikloa amaitzearekin batera, taldearen zein proiektuen lehen bizi-zikloa amaituko da, eta, beraz, aurrera eramandako proiektuen jarraipenaren eta/edo etorkizunaren inguruko hausnarketan eta plangintzan ardaztuko da zikloa.

#05. ZIKLOA. KOMUNITATEA

Proiektuak aurkeztu ondoren, **bai taldeak (masterreko ikasle-taldeak) ikasitakoa bai norbanakoak bereganatutako trebetasunak eta ezagutzak** «ospatzeko» ordua izango da.

Gainera, ikaskuntzen inbentario bat egin behar izaten da, masterrean sortutako komunitateari jarraipena emateko moduaren inguruan erabakiren bat hartzeaz gain.

Zergatik LIT?

Fail Together. Learn Together. Light it up.


Ikaskuntzaren hainbat testuingurutan agertzen ari diren premia berriei erantzun bat emateko sortu dira ikaskuntza errazteko lanabesak. Garabidean dagoen lanbide bat da, ikasgelako irakaslearen eredu tradizionala ez bezala, baina, era berean, ingurune profesionaletan prestakuntzaz eta instrukzioaz arduratzen diren pertsonak egiten duten lanaren oso bestelakoa.

Etengabe eta oso azkar aldatzen ari den mundu batean, **datozkigun erronkei aurre egiteko gai izango diren profesionalak prestatu behar ditugu, ziurgabetasunaren aurrean erreakzionatzen jakingo dutenak eta, areago, ziurgabetasun hori inspirazio- eta lan-iturri bihurtzen jakingo dutenak.**

Cizartearen egungo eskakizunei erantzuteko erakunde eta enpresetan aldaketak egin behar direlako ideia hainbat azterlanetan dago jasota. Denak bat datoz gauza bat azpimarratzean: aldaketa hori gauzatuko bada, oso **pertsona gaituak prestatu behar dira, sozialki konprometituak, begirada kritiko batetik aldaketak sustatzeko eta erakundeetan aldaketak eta berrikuntzak bideratzeko gai izango direnak.**

Hau da, ikuspegi orokor batetik arituta, prestakuntzaren testuinguruak identifikatzeko eta ulertzeko gai izango diren profesionalak prestatu behar ditugu, testuinguru horietan eragiteko gai izateaz gain haiek oinarri eta gai hartuta lan egingo dutenak, ikaskuntza erraztea helburu betiere.

Taldean ikasteko eta baita huts egiteko ere prest dauden pertsonak, askotariko testuinguruetan ezagutza berriak sortzeko prest daudenak.



Norentzat da egokia LIT?


Eraldaketan sakontzea eta ez azalean geratzea helburu duten pertsonak bilatzen ditugu.

#Orain arteko ibilbidea norabidez aldatzeaz gain ikaskuntza errazteko esperientzia eta metodologia berriak ikasi nahi dituzten profesionalak, edozein diziplinatakoak.

#Kultura-eragileak, gizarte-hezitzaileak, irakasleak, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan graduatu berriak.

#Enpresetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako ikaskuntza-prozesuetan eta ezagutzaren kudeaketan diharduten teknikariak eta arduradunak.

#Proiektu berrietan edo dagoeneko indarrean daudenetan eraldaketa-prozesuak bideratzeko gogoia duten pertsonak.



Nork garatzen du LIT?

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (**HUHEZI**) eta **TEAMLABS** ikaskuntza erradikal eta berrikuntzarako laborategiak, gizarte- eta hezkuntza-berrikuntzarekin konprometituta dauden hainbat profesional, aditu eta akademikorekin batera.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitatea irabazi asmorik gabeko unibertsitate kooperatiboa da. Mondragon Korporazioko kide da, zeina Euskadiko lehen enpresa-taldea, Espainiako hamargarrena eta munduko kooperatiba-talderik handiena baita (266 enpresa eta 80.000 langile inguru).

Ezaugarri nagusiak hauek dira: berrikuntzaren aldeko apustu irmoa, eraldaketa pertsonalarekin eta sozialarekin duen konpromisoa, eta lan-munduarekin duen harreman estuaren ondoriozko orientazio praktikoa.

Irakasle Eskola moduan sortu zenetik, 1976an, Mondragon taldeko mugimendu kooperatibora atxikitako hezkuntza-kooperatiba izan da. Hortaz, kooperatiba-izaera duen erakundea da Fakultatea, Euskal Herrian errotua. Era berean, ezagutzari lotutako prestakuntzari, ikerketari, aplikazioari eta transferentziari dagokienez, **Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** irekita dago mundu osoan arlo horretan diharduten beste zentro, pertsona eta erakunde batzuekiko elkarlan eta hartu-emanetara.

TEAMLABS/

XXI. mendeko unibertsitate-eredu berri bat, disruptiboa, esperimentatzeko hezkuntza-proiektu bat. Espazio transdiziplinar bat, taldeek proiektuka lan eta ikas dezaten, inpaktu globala izateko xedez. Ez dago irakaslerik, ez ikasgelarik, ez eskola konbentzionalik, ez azterketarik, baizik eta proiektuka lan egiten duten eta, mentalitate global bat garatzeko, munduan zehar bidaiatzen duten talde interdiziplinarrak.

Espazio fisikoaz haratago, **Teamlabs laborategiak ikaskuntza-tresna egoki bat dira aldaketa-eragile izateko gaitasunak dituzten profesionalak behar bezala prestatzeko**. Horretarako, zeharkako ikuspegi ez-diziplinar batekin prestatutako proiektu errealetan eta akademiatik kanpo lan egiteko aukera eskaintzen zaie ikasleei, pertsona bakoitzak bere ikaskuntza bultzatzen, norbaiten irakaskuntzen zain egon beharrik izan gabe.

Teamlabs-en berrikuntzaren alorrean egiten dugun lana honako printzipio orientatzaile hauetan oinarritzen da:

1. Learning by doing: “Eginez ikasten da, eta, egiten ez bada, ez da ikasten”. Teamlabs-en sartzen diren pertsonak proiektu errealetan dihardute hasiera-hasieratik, eta erabiltzaileak eta beharrak ere errealak dira.

2. Mundu akademikoaren eta profesionalaren arteko mugak ezabatzea: Teamlabs-en, ikaskuntza ez da mundutik bereiz dauden ikasgeletan gertatzen. Teamlabs ikaskuntza-laboretegiak etorkizuneko negozio-ereduak eta profil profesionalak sortzeko ekosistema hibridoak dira.

3. Hezkuntza iraultzeko bokazioa: Teamlabs-ek ekarpena egin nahi du munduarekin proaktiboki konprometituta eta lankidetzara irekia dagoen klase profesional berritzaile bat sendotzeko.

4. Taldeen laboretegia, Finlandiako hezkuntza: Teamlabs-en ikaskuntza-eredua taldean oinarritzen da, taldea hazkuntzarako eta ikaskuntzarako bide gisa ulertuta, eta helburu horrekin berariaz diseinatutako metodologia bat darabil horretarako: Team Academy edo Design Thinking delakoa.



Informazioa,

Oinarrizko informazioa

Kredituak guztira: 60 ECTS

Iraupena: urtebete

Modalitatea: erdi-presentziala. Online eta presentziala Madrilen eta Bilbon, tailerrak ostiraletan eta larunbatetan.

Hizkuntza: programa gaztelaniaz edo euskaraz garatzen da online-plataforman.

Workshopak adituen hizkuntzetan egingo dira (gaztelaniaz eta/edo gaztelaniaz eta euskaraz)

Prezioa

Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan (LIT) Unibertsitate Masterraren inbertsioa 7.875 € da guztira.

Inbertsio hori planifikatzen laguntzeko, bi ordainketa-modalitate ditugu:

Ikasturte hasierako ordainketa bakarra.

Ordainketa zatikatua:

3 edo 5 kuotatan:

3 kuota: matrikula egiterakoan, abenduan eta martxoan (2.600 € kuota bakoitzean).

5 kuota: matrikula egiterakoan, azaroan, abenduan, otsailean eta martxoan (1.560 € kuota bakoitzean).

Aurrez plaza erreserbagatik 1.000 €ko ordainketa eginda dutenei lehenengo kuotan gutxitzen zaie zenbateko hori.

Gainera, erakunde bereko 2 pertsonak edo gehiagok izena ematen badute, 1.560 €-ko (% 20) deskontua aplikatuko dugu bigarren pertsonatik aurrera.

FUNDAEren bidez matrikularen kostuaren % 50etik gorako hobaria lor dezaketen erakundeak izan ezik, horiek matrikula bakoitzaren % 100 ordainduko baitute.

Programak % 100eko hobaria izan dezake Fundae-n.

Alegia, dirurik inbertitu gabe ere egin dezakezu LIT, hots, zure denbora soilik inbertituz. Behar duzun gauza bakarra zure enpresari eskaera egitea da (erakundeek dute kredituaren hobaria jasotzeko aukera). Hortik aurrera, gure kontu egingo dugu kredituari dagokion kudeaketa, aholkularitza eta egiaztapena, aholkulari espezializatuen bitartez.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko **ikasle ohia** bazara eta Alumni Mondragon elkartean alta emanda bazaude, %5eko deskontua izango duzu (390 €).



Kontaktua

lit@mondragon.edu

+34 600 022 720

Lit,

Fail together.
Learn together.
Light it up.

m

Mondragon
Unibertsitatea

Facultad de Humanidades y
Ciencias de la Educación

TeamLabs/

FACE THE
NEXT